

Euskal AEko merkatuko zerbitzuen sektorearen salmentak % 2,4 igo dira 2024ko lehen hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmentak % 1,4 gehitu dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko *Merkatuko beste zerbitzu batzuk* sektoreko salmentak % 2,4 gehitu dira 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak kenduta. Sektore honetan *Garraioa*, *Ostalaritza*, *Informazioa eta komunikazioak* eta *Enpresentzako zerbitzu-jarduerak* sektoreek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, prezio finkoetan eta dagozkien urtaro-eraginak aterata, salmentak % 1,4 igo dira 2024ko lehen hiruhilekoan.

Beste merkatu zerbitzu batzuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Beste merkatu zerbitzuen indizea

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektorearen barruan, salmenta errealean urte arteko susperraldia (prezio konstanteetan) orokorra izan da. *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan* salmentek % 3,7 egin dute gora, *Ostalaritzan* % 2,7, *Garraioa eta biltegiaritzan* % 2,3, *Informazio eta komunikazioetan* % 2,1 eta, azkenik, *Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietan* salmentek % 0,2 egin dute gora aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2024ko lehen hiruhilekoa 2023ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, salmenten portaera positiboa ikusten da ia sektore guztietan. Horrela, *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen* sektorean salmentak hiruhileko artean % 1,8 gehitu dira, *Ostalaritzan* % 1,2, *Garraio eta biltegiatzean* % 1,1 eta, azkenik, *Jarduera administratibo eta zerbitzu osagarrietan* salmentak 2023ko azken hiruhilekoan egindakoak baino % 0,3 handiagoak izan dira. Portaera negatiboa izan duen sektore bakarra *Informazioa eta komunikazioak* izan da, non salmentak hiruhileko artean % 0,4 jaitsi diren.

Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea. Behin-behineko datuak. 2024/I

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-4	At / A(t-4)
INDIZE OROKORRA	2,4	1,4	2,4
Garraioa eta biltegiatzea	2,3	1,1	2,3
Ostalaritza	2,7	1,2	2,7
Informazioa eta komunikazioak	2,1	-0,4	2,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	3,7	1,8	3,7
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	0,2	0,3	0,2
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Alava	0,2	1,3	0,2
Bizkaia	3,8	1,0	3,8
Gipuzkoa	1,0	2,4	1,0
ENPLEGUA	0,2	0,2	0,3

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2024ko Maiatzaren 17a

Iturria: Eustat. Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian urte arteko % 3,8ko igoera izan da salmenta-indizean, Gipuzkoan % 1,0koa eta Araban % 0,2koa. Hiruhileko arteko bilakaerari dagokionez, hiru lurraldeetan izan da hazkundera: Gipuzkoan % 2,4, Araban % 1,3 eta Bizkaian % 1,0.

Euskal AEko *Merkatuko beste zerbitzu batzuen* sektoreko enplegatuen indizea % 0,2 igo da 2024ko lehen hiruhilekoan, 2023ko lehen hiruhilekoaren aldean. Aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean ere hazkundera % 0,2 izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea **% 89,2ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62